

Domina zaparradea arratiarrentzat European

Euskal Selekzinoak txapelketa nagusi bitan lorpen handiak eskuratu ditu, eta arratiar pelotari zein entrenatzaileek protagonismo sano inportantea izan dabe. Leeuwardeneko Munduko Wallball Txapelketan zazpi domina batu dabez, eta Ath-eko Europako Junior Txapelketan hamar. Mikel Beldarrain arteaztarra, Lur Ziarrusta, Malen Lamadrid eta Dorkaitz Meabe dimoztarrek eta Mikel Aurrekoetxea lemoaztarra, lorpen historiko horreen erdigunean egon dira. **11. orrialdea**



Gorbeia Suzien hileko atzen astegoienean



Hilaren 27an jokatu da Gorbeia Suzien Skyrace, 32 km-ko lasterketea eta 21 km-koa be bai. Sari banaketea 14:30ean izango da eta hurrengo egunean umeen lasterketea egingo da. 13 urteotan nazinoarteko erreferente bihurtu da eta aurtan 1.500 lagun apuntatu dira, baina 500 plaza baino ez dagoz. Autobus zerbitzua egongo da eta lasterketea EITBn, Sws kanalean eta Evasion TVn ikusteko aukerea izango da. Hilaren 19an, Igorreko Kultur Etxean liburu baten aurkezpena egingo da. **10. orrialdea**

Merkartea egunean, merkadua eta jai giroa



Urri lehenengoaren 20an izango da tradizio handia daukan Merkartea, inguruko ekoizle eta artisauen azokea. Frontoian eta inguruetan salmahaiak egongo dira, baserriko produktuak eta artisautza nagusi. Arrasti eta gauean, Aukeran jantza konpainiaren ikuskizuna eta Zutik taldearen erromeria egongo dira. **5. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Palestinaren aldeko mobilizazio lokal eta global ugari

Gazako genozidioa geldituteko politikarien epelkeriaren aurrean, mundu osoko herritarrak, maila lokalean eta globalean ekintzak egiten dabiz nazinoartekak presinoa egin deion Israeleri. Espainiako Vuelta ziklistea eta Global Sumud Flotillea dira ekintza horreetako bi. **8. eta 9. orrialdeak**

IGORRE

Euskal Herriko giza kate-kiribil luzeena egitea izango da erronkea Igorreko Inbiu egunean

Inbiu, Igorreko euskera eguna, giza kate-kiribil luzeenaren erronkeagaz hasiko da hilaren 20an. 12:00etan Lasarte parkean kateari ekingo deusie eta 13:00etan Urbietako futbol zelaian egingo da kiribila. Herritarren eta euskaltzaileen parte-hartzea funtsezkoa izango da erronka hau lortzeako. Igorren euskerearen ikur dan Zuztertxuk alaituko dau jaia, Arratia Institutuko Galtzagorrien, Eingokoen eta Musika Eskolako hainbat kidegaz batera, euskerearen aldeko giro berezia sortuz. **6. orrialdea**



IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA
Elexalde, 4
48140 Igorre
94 631 55 08
Igorre@bizkaifisios.com

ANDRA MARI KLINIKA
Pontzi Zabala, 1
48960 Galdakao
94 457 23 64
galdakao@bizkaifisios.com

Literatura txokoa

ORREAGA

Ate joka udagoiena, urrun geratzen jakuz bagilako suak eta garagarileko oporrak eta abuztuko bero sapak. Ikasturtea hasi da eta asko Durangoko Azokara begira egongo dira. Hain zuzen be, liburu barrien kritikeari. Eta aldrebesekoa nazen honek, uda eta komiki zaharrak dakartsuedaz.

Joan behar dogu atzerantza, oso atzerantza, dagonila zan, hamabost, 778. urtea. Uda betea. Guda gizon burutsu eta handinahia dan Karlo-magno, Karlo Handia. Bidean eus-kaldunon uriburu buruzagia suntsitu eta sartu da gudarostea Luzaidetik Ibañetarantza. Han sufriduko dabe porrot ikaragarria eta bertan hilgo da Errolan, Karlomagnoren lobeia. Gerora, ereserki eta kondaira ugari sortuko dira honen inguruan.

Gurean asko idatzi da gertakari


honeen gainean, eta komikigin-tzeak be ekin deutso honeri. Go-goangarria da Juan Luis Zabalaren *Orreagako kronikak* liburua. Eder askoa. Baina oingoa gurago izan dot bersino zahar bi ekarri.

Bata, Antonio Hernández Palaciosena, Jose Maria Jimeno Jurio jakintsuaren hitzaurre dotore eta mamitsuagaz. Bestea, Beñat Lefever eta Marc Armpachena. Eta zergaitik? Bada iruditzen jatalako gurean gauzak oso modu desbardinez kontau leitekezala eta bersinoak ez dirala kontrajariak, bateragarriak baino. Izan be, Palaciosen lana serioa da, xehetasunez landua, eta aldi berean, maitasun istorio bat be kontetan deusku, Otsa eta Askoarena, ameskeria hutsa izanik, kontakizunari bizkarrezurra emoten deutsana.

Bestea, Kukubiltxo taldeak egin-dako antzezan baten karira sortu zan. Eta noski, honek askatasun ikaragarria dakarsku, haize freskoa. Anakronismoz beterik, Guda Zibilari eta Hertzainaken abestiei erreferen-tziak nongura, alkarrizketa zoroak, txaribodak, futbola, San Ferminak... Anabasa honetan, Orreagan bas-koiek eskuratutako garaipenak di-mensino dibertigarria hartzean dau.

Behingoagaitik gure historiak ertz ugari dituala eta berauetara modu desbardinez hurreratu gaitkezala, hori gaur esan gura genduna. Ba-dakizue beraz, Ibañetan zehar zoa-zienean, gogoratu sorginek inoena: "beren arima errudunak EHko basoetan zehar eten barik norae-zean ibiliko dira mendez mende".

@fantomastxiki



Beñat Lefever eta Marc Armpach

Orreaga

Sua edizioak, 1991

48 orrialde

Antonio Hernández Palacios

Orreaga

Ikusager ediciones, 2001

Liburua 1979koa da

56 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Urri lehenengoaren 15etik 21era
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara
Sarasketa. Amorebieta-Etxano. (13-19)
Urri lehenengoaren 22tik 28ra
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara
Iruarizaga. Amorebieta-Etxano. (20-26)
Urri lehen. 29tik urri bi. 5era
Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara
Gutierrez. Amorebieta-Etxano. (27-3)
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Cometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13
Dima: 94 680 19 74
Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16
Ubide: 945 45 03 61
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 / mankomunitatea.arratia@bizkaia.org
Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea
94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net
Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus
Areatzako Notariotza 94 673 92 26
Errota Fundazioa
688 854 543 / info@erota.eus
Arratiako Musika Eskola
94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.
Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.
Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.
Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.
Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.
* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.
Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao
Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. *Basauriraino bakarrik.
Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20. *Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.
Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.
Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.
Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.
Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.
Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11
Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: Ubidekoak 06:45ean eta 08:45ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau.
Jaiegunetan: Ubidekoak 10:30ean urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: Ubidekoak 15:15ean eta 16:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 10:30ean.
Zapatuetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau eta Otxandioakoak 10:30ean.
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketee:** Garbikuzi enpresea (Dima), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus, **Mastodon:** @begitu, **X:** @BegituEus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkarteenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskertronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Komunidadea egiteko espazioa

Espazio barriarentzako proposamen bakarra heldu da, baina egokitzeak jo dogu BEGITU, eta espazio hau Arratiako alkarteei eskainiko jakie. Izan be, gurean lan egiten daben gizarte eragile diran alkarteak eurak, eta alkarteen sarea, indartuteko, espazio hau baliagarria izatea gurako geunke. Gizarte eragile indartsuek, gizarte indartsua egiten dabelakoan gagoz eta.

Holan, zenbaki bakotxean alkarte batek bere barri emongo dau –bere lana, helburuak...– eta interesa daukienak zelan ipini daitekez eurekaz kontaktuan be azalduko dau, telefono edo helbide elektroniko bat emonaz edo, lokalik izan ezker, ze egunetan batzean diran lokalean zehaztuz.

ERETXIA

Gu be turistak gara!

Dagoaneko, ia danok, egunerokotasunean murgilduta ibiliko bagara be, oindino, udako oporretan bizitako une gogoangarriak bueltaka dihardue nire buruan; paradisua dirudien hondar zuriko hondartza hareek, besteko herri txiki bezain xarmagarriak, mendi punta haretatik egozan bistak... Zoragarriak, leku guztiak zoragarriak dira oporretan joateko.

Hamabost egunez, turista peto-petoak bilakatu gara; bai, azkenaldian, Bilbon, Donostian, eta Euskal Herri zabalean gero eta gehiago ikusten diran atzerritarrak bezalakoak gara geu be. Garai batean ez bezala, gaur egun, gehienok etxetik alde egiten dogu zenbait egunez, egunerokotasunik igesi, "atseden", toki edota esperientzia barri bila. Euskal Herriko barrukaldeko herriak hustu egiten dira udan, batez be, abuztuan, eta, oster, kostaldeko herriak udatiaz beteten dira, zenbaitetan neguko biztanle kopurua hirukoizteraino.

Datuek berez berba egiten dabe, eta, argi erakusten dabe, Euskal Herria gero eta erakarriagoa dala nazinoarteko bisitarienentzat; uriak, kostaldea eta mendialdea erakarri bihurtu dira atzerriko bisitarienentzat.

Euskadin, urtailetik garagarri lera, bisitarien sarrerak % 5 hazi dira, eta, nazinoarteko turismoa % 6,7 hazi da, Espainiako turismoaren % 3aren aldean. Turismoaren hazkunde honek bere alde gazi-gozoak daukaz. Ostalaritza, garraio, kultura eta merkataritza sektoreek onura zuzena jasoten dabe bisitari kopuruaren hazkundeagaz, eta, oster, turismoaren hazkundeak masifikazioa, ingurumenaren hondatzea, eta, tokiko biztanleen bizi kalidadearen murrizketak ekarri leikez.

Dilema horrek galdera zuzena egitera gakarz: nor da turistea? Arratiatik Conilera doana turistea da? Eta, kostaldetik Pirinioetara doana? Eta, Iruñatik Perura doana? Noz ixten deusagu turista



AINARA ARREGI
Kazetaria

izateari?

Galdera erraza dirudian arren, erantzun gatzeko itauna da. Gaur gaurkoz, mobikortasuna, esperientzia eta konsumoa nahasten diran mundu batean, turista izatea ez da bakarrik gurea ez dan leku baten egotea. Turista izatea jarkera kontu bat da, begirada bat, eta batzuetan, zergaitik ez, egoera bat be bai.

Askotan, turistak kanpokoak dirala pentsetan dogu. Beste hizkuntza batean berba egiten dabenak, argazkiak ateraten dabezanak, mapa baten aurrean galduta dagozanak. Baina egia da, gu geu be turistak garala beste leku batzuetan.

Turismoa ez da bakarrik leku bat bisitetea; gure eguneroko erri-timoa eten, beste leku bat ezetu, eta esperientzia barriak bilatzen dihardugu etenbarik. Eta horrek ez dau zertan txarra izan, baina hipokrisia da besteak kritiketea, gu geu be egoera berean gagozanean. Horixe da turismoaren hipokrisia soziala: gure herrian turista izatea pekatua da, baina beste herrietan turista izatea eskubide. Gure kaleak babestu behar dira, baina besteak... *selfie* baterako *atrezkoa* dira. Eta noski, gu ez gara inoz "kanpokoak". Gu beti "tokikoak" gara, nahiz eta mapeagaz galdu eta "non dago katedrala?" galdetu.

Hortaz, noz ixten deusago per-sona batek turista izateari? Agian, bisitan joandako leku horretan biziten hasten danean. Edo agian, tokiko erri-timoa bere egiten daua-nean. Edo, beste barik, bertakoek bere presentzia arrotza izateari ixten deusienean.

Beraz, hurrengoan turista bat ikusten dozunean, saiatu begirada zorrotz horregaz ez begiratzen, eta, gogoratu: zu be turistea zara!



LUMATUTEN



MIKEL URRIZ

Etsipena

Nik be, ezin itxi aukerea pasetan Palestinako genozidioa aitatu eta salatuteko. Min egiten deuste irudiek. Diskursoek gaixotzen nabe. Egin bakoek, eta eragin bako ekimenek be, amorrua sortuarazoten deuste. Duda-mudarik barik, jente-arteko xedea da genozidioa gelditzea eta Palestinako herriari bere funtsezko eskubide eta bizi baldintzak bermatzea. Zergaitik, orduan, ezin dogu sarraskia gelditu? Ez dogu gura akaso? Gitiiegi egiten dogu agian? Presino-indar lar txikia ete gara? Beharbada ez daukagu tresnarik, ez gaitasunik, nazinoarteko, estadu eta orohar, podere politikak aldatu arazoteko. Indartsuak dira estaduak, indartsuak ekonomiaren jainkosak, podere-tsua. Dirudiane; gu harri koxkorra euren zapatetan baino ez gara.

Bestalde; salbuespenak salbuespen; adierazpen publikoetatik aparte, neurri gixi hartu ditue, Erkidego, Estadu eta Europako gobernuak sarraskia gelditu arazoteko. Besteak beste, falta jataz, Ukraina erasotzean Errusiaren aurka martxan ezarritako

berehalako neurriak, kontu korronteen blokeoa, ondasunen enbargoa, transituaren debekua eta abar. Europan duintasun falta nabarmena da, poderetsuaren aurrean epel eta morroia, gure bizimodu erosoa ariskuan ipini barik, badaezpada be!

Israelek ez dau atzera egingo presino barik, baina non dago, edota nor dauka, presino hori jasangaitza bihurtzeko horrenbesteko indarra? Baikor eta gogotsu izan gura neuke eta indar hori harri koxkor garan guztiok alkarregaz metatu daiekgula adierazo, baina zoritxarrez etsita nabil eta Gazako sarraskia gelditu arazoteko tresnarik nire esku ez dagoalakoa nago.

Gogoetarako bidea zabaldu gurako neuke eta hamaika erantzun daukan galderea bota. Zenbat buru hainbat aburu! Zein demokrazia mota da gurea, Gaza lango sarraskia gelditu arazoteko —edota oztopatuteko be— gaitasunik ez daukana? Hutsaren hutsa.

Lar postmodernoak ez ete gara? Kirol probetan, kultura ekimenetan, negozioetan eta bizimodua definituten daben arlo guztietan, Israel estaduaren kontra planteetan dan ekimen guztien aurrean eretxi kritikoak eta errepresinoa be, agertzen dira, gure irudia kaltetzen ei dau Israelen kontrako boikot orokorrak. Ahaztu egiten jaku Israelek kirol probetan, kultura ekimenetan, negozioetan eta bizimodua definituten daben arlo guztietan palestinarrek daukien eskubide berbera sustraie-tatik zapuzten dauala. Gure bizimodu lasai honetan zeozer galdu behar badogu, izan daiteela Palestinaren askatasuna eta eskubideakaitik!

ZERTZEAN



IGOR ESTANKONA

Abuztuak 30, eta ilargi betea

Eta Mañarian diote Eskillarriko azken hartza Arruetako neskaxi batek ikusi ebana iturrira bidean uxoa zela, ederra zela, iletsua zela usaindu zituela, urrunetik, bere hiltzaileak denak: Juan Kruz Bizkarra, Julian Agirre, Timoteo Etxanobe, Jose Solaguren, Mañariako beste bat, dimoztar bat be bai jende asko, *freaky* asko aukeran, eta Mañarian diote azken hartza izan zela ederra Antzuolako Lizarragako erreka azkena bezain eta Zuberoan diote azken hartza ikusi zutela Bearnon asko maite izan den gorputz baten antzera gauean eta bearnotarrek diote ladinoz esan ziela banoa betiko, *me vèi per sempre*, eta Tirolen diote azken-azkena Hungarian ikusi bide zutela, grisa eta abstraitua, baina Krimeakoak direla lerdenean eta han diote ez dela hartza, ezpada mamu bat, nahaste bat, lehoinabar bat, edo PJAK alderdiko emakume bat gandupean, eta tartarok diote tigre dotoreenak Siberiakoak direla eta horrela doaz ametsak mudatuz, ekialderantz...

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Bidaiatzeko beste modu batzuk badagozala eta gurean be igaro daitekezala udako oporrak naturaz, paisajeez eta ondareaz disfrutauz ekarri deuskue gogora Udako Argazki Lehiaketara argazkiak bialdu deuskuezan hainbat parte hartzailek; oin arte jaso doguzan argazki gehienak Euskal Herrian ateratakoak dira-ta.

Oingoan Aitor Bilbaok Miarrizten ateratako argazki hau dakargu; hondartza ondoan zakutodun bizikletea ikustean, prisa barik, agenda barik eta askatasunez disfrutautako bidaia aditzera emoten deuskuna. Lekua errespetetan dauan turismoa edo bidaia, masifikazinoa, saturazinoa eta gentrifikazinoa eragiten ez dauana.

Aurtengo Oporretako Argazki Lehiaketarako argazkiak bialtzeko hamar egun be ez dira geratzen, hilaren 25ean amaitzen da epea eta. Aurreko zenbakian Unax Irazabalek landetan ateratako argazkiagaz, eta oingoan Aitor Bilbaok egin daben moduan, Argazki Lehiaketan parte hartu gura badozu, bialdu lehenbailehen zure argazkiak, hiru gehienez, begitu@begitu.eus helbidera.

Ez ahaztu, irabazleak landetxe baten astegoiari pasa izango dauala sarizat.





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Goldor 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



agoa

hagin klinikak

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zerbaita: 900
R.P.S. 31/06

ARTEA

Merkartea Azokea eta jaia Artean

Urri lehenengoaren 20an, Merkartea, azoka zabala eta izen handikoa egingo da Artean. Aukeran jantza konpainia eta Zutik taldeagaz erromeria be egongo dira azokearen ostean. Inguruko ekoizleak, artisauak eta euskal musikea dira egun honen ardatzak eta baserri giroko euskal tradizinoak, bizirik eta eraberrituta, Arteako erdigunera ekarteko eguna izaten da.



Erredakzinoa

Azokea 10:00etan hasi eta 15:00ak arte luzatuko da. Frontoiko parkingean eta aurrekaldeko salmahaietan batez be

baserriko produktuak salduko dira eta frontoi barruan artisauentzako salmahaiak egongo dira. 12:00etatik 14:00etara, *photocalla* egongo da baserritar jantzita doazenentzat.

Iluntze-gauean, musikea

Jantza ikuskizunak eta erromeriak osotuten dabe aurtengo Merkartean iluntze-gaueko musika egitaraua. 21:00etan, Aukeran Dantza Konpainiak *Fusioak* ikuskitzuna eskainiko dau. Lan honetan, konpainiak, euskal eta munduko folkloreaken erritmoak fusionetan ditu, ikuskizun garaikide eta barritzailean. Publikoan emozinoak eragiteko asmoagaz sortutako lana da. Aukeran konpainia Donostian sortu zan 1997an, Edu Muruamendiaraz jantzari eta koreografoaren ekimenez. Jantza tradizionalaren eta garaikidearen mestizajearen oinarritzen dira konpainiaren lanak.

Ostean, 23:30etik aurrera, erromeria egongo da Zutik taldeagaz. Zutik Zomotzan sortutako taldea da, Euskal Herri osoan entzun diran eta entzuten diran euskal abesti ospetsuak jotzen dituan.

BEDIA

Igeriketa erronka gogorra umeei kontatua marrazki bidez, Bedian

Erredakzinoa

Hirukokoroa itsas erronka marraztua Iskander Sagarminagak uger egindako hiru zeharkaldi gogor Eider Eibarrek marraztuta erakusten ditu. Umeei begirako egitasmoa da pistei jarraituz koko bila bidia lez aurkezten dana. Bedian egongo da ikusgai hilaren 17an, 18:00etan, plazan. Igeriketako Hiruko Koroa (*Triple Crown*) hiru zeharkaldik osotuten dabe: Mantxako kanalak, Manhattanek eta Katalinak. Sagarminagak Mantxako kanala eginda eukan 2023an eta beste biak 2025 honetan egin dauz. Eider Eibar marrazkilariagaz egindako proiektuan, honeek biak eta hirugarren bat jasoten dira, Ipar kanalekoa, hain zuzen be.

35 eguneko epean Manhattan uhartea NY (48,5 km 07:58ko denporan), Katalina kanala LA (35 km, 12:17) eta Ipar kanala Ipar Irlandatik Eskoziara (37 km, 10:28)

uger zeharkatu ditu Sagarminagak. 140 km uger egiten. Beragaz, txalupan, joan da Eider Eibar marrazkilaria abenturea irudiakaz jasoten.

Umeei begirako aurkezpena

Eider Eibar marrazkilariak Pamie-la argitaletxeagaz argitaratu eban album ilustrau bat eta han "zazpi koko" agertzen ziran eta Sagarminagaren ugerketa zeharkaldian koko gehiagoren bila doaz. "Koko barriak topau doguz! Non? Gure erronken abenturetan! Nogaz? Iskander, Eider eta Margo Piratakaz! Noz? Uda honetan! Manhattan, Katalina eta Ipar kanala zeharkatu eta 100 km-tik gora uger egin ondoren Euskal Herrian bueltan dira eta gure abenturea zelangoa izan dan

kontau gura deusuee. Zelan? Marrazki bidez, noski! Bazatuz Iskander igerilari ausarta, Eider marrazkilari irudimentsua eta euren abenturetan topautako altxorak ezetuten?" azalduten dau sinopsiak.

Auto bako eguna

Hirukokoroa itsas erronka marraztua Bediak urtero aldarikatzen dauan auto bako egunaren egitarauaren barruan dago. Honetaz gainera, Udalak planteautako kirol erronkea bete daben herritarren talde argazkia egingo da. Kirol erronkea, zezeiletik garagarriera, hiru mendi igotea zan: Burtotza, San Pedro de Atxarre eta Urkiolagirre. 25 lagunek gainditu dabe erronkea.



ARANTZAZU

Estadu mailako geocoaching jolasaren gaineko jardunaldiak egingo dira Arantzazun

Urri bigarrenaren 3tik 5era, GC Talk 2025 izenpean, estadu mailako geocoaching, -GPS bidezko altxorraren bila jolasa- erreferenteek euren esperientziak, pasadizuak, *caché*-ak eta jolasaren etorkizunaren gaineko eretxiak konpartiduko dabez hainbat berbalditan.

Erredakzinoa

Parte hartuteko izena emon behar da www.geocoaching.com webgunean, baina ekintza guztiak debaldekoak dira.

Jentez beteko da Arantzazu, 320 talde baino gehiagok hartuko dabe parte-eta. Plazan karpa bat egongo da eta bertan entzun ahal izango dira berbaldiak. MAZE eta *caché*-en erakustaldia Kultur Gunean izango da. *Maze* (labirinto) edo GPS abenturen erakustaldia, geocaching mota bat da, GPS eta geocaching teknologiari buruzko erakusketa ofiziala. Informazio paneletan eta beste elementu interaktibo batzukaz egiten da ibilbidea, euren historia, funtzionamentua eta berezitasunak kontuan hartuta.

Bazkaltzeko, mahaiak eta aulkiak egongo dira plazan.

Egitaraua

Urri bigarrenak 3, barikua

19:00etatik 21:00etara, ondo-otorri boltsak eta kredenzialak jaso.

19:00etatik 21:00etara, *Maze*, erakustaldiaren irekierea.

21:00etan, geocoaching-aren 25. urteurreneko kontzertua. Priscilla Band.

Urri bigarrenak 4, zapatua

10:00etatik 12:00etara, ondo-otorri boltsak eta kredenzialak jaso. 10:00etatik 11:00etara, berbal-dia: *Zelan antolatu geocoaching jarduera bat?*

12:00etan, berbal-dia: *Zer demonstre dira geoerronkak?*

12:00etatik 14:00etara, *Maze*, erakustaldiaren irekierea.

14:00etan, geocoachlarien bazkaria herriko plazan.

16:00etatik 17:30era, Comikaching *podcast*aren grabaketea.

18:00etatik 19:30era, galderak eta erantzunak zure ikuskatzaileagaz.

21:00etan, afaria, queimadea eta musikea.

Urri bigarrenak 5, domekea

10:00etatik 12:00etara, geocoachlarien arteko herri kirolak. *Woodcoins* trukea.

12:00etatik 14:00etara, *Maze*, erakustaldiaren irekierea.

12:30etik 14:00etara, bertoko produktuen dastaketea.

14:00etan, bazkaria, amaierea eta sari banaketea.

Geocoaching aplikazioaren bidezko altxorraren bila jolasa

Zer da geocoachinga?

Geocaching altxorra bilatzeko mundu mailako jokorik handiena da. Geocaché izeneko 3 milioi edukiontzi baino gehiago dagoz mundu osoan, ezkutuan.

Zer topau behar da?

Geocacheak tamaina eta forma guztietakoak dira. Batzuk edukiontzi handi berrerabilgarriak izango dira, eta beste batzuk azazkalaren tamainakoak. Geocacheak ez dagoz inoz lur azpian.

Geocachea topautakoan, hartu egin behar da?

Ez. Erregistro liburuan sinatu eta topautako lekuan itxi behar da.

Zer dago geocache baten barruan?

Barruan dagoana hainbat gauzaren arabera da, batez be geocachearen tamainuaren arabera da, baina beti egon behar da erregistro bat sinatzeko. Handienetan, trukeko elementuak be topau daitezke. Trukeko gauzea eroaten badozu, itxi balio bereko edo handiagoko zeozer.

IGORRE

Inbiu, euskerearen eguna, Igorretik harago

Atzenengo urteetan lege, Inbiu, Igorreko euskera eguna erronka batez hasiko da. Aurten, Igorreko Udalak antolatuta, Euskal Herrian inoz egin dan giza kate-kiribil luzeena egitea izango da erronkea, eta horretarako ezinbestekoa da jentearen parte-hartzea; Igorreko herritar guztien eta beste herrietako euskaltzaleena be bai.



Igazko Inbiu eguneko irudia.

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 20an izango da, zapatuan. 12:00etan Lasarte parkean kateari hasikerea emongo deusie, eta 13:00etan Urbietako futbol zelaian kiribila egingo dabe euskaltzaleek. "Euskerea lotzean gaituan loturea da, eta herri gisa daukagun nortasuna indartzen dau. Kiribil honegaz erakutsi gura deusagu munduari Igorrek eta Arratiak euskerea besarkatu eta gure bizitza sozial eta kulturalaren erdigunean ipinten dogula. Erronka kolektibo baten parte hartzeako gonbidapen irekia da, eta alkarregaz egiten badogu bakarrik dauka zentzua" nabarmendu dau Olatz Urkiza alkateak.

Beraz, aurten Inbiu egunean, herritarren inplikazino handiagoa lortu gura dabe antolatzaileek. "Erronka honeri esker, Igorre euskalduntzearen aldeko harremanak, parte-hartzea eta herritarren laguntzea sustatuko doguz. Horregaitik, funtsezkoa da talde eta alkarteen, ikastetxearen, institutuaren, AEKren, Euskara Batzordearen eta Igorreko bizilagunen eta bat egin gura daben guztien parte-hartze aktiboa" azaldu deutso BEGITURI Igorreko Udaleko euskera teknikariak.

Igorren euskerearen ikur dan Zuztertxuk alaituko dau jaia, Arratia Institutuko Galtzagorrien laguntzeagaz. Eurakaz batera, Eingokoek eta Musika Eskolako hainbat kidek girotuko dabe jaia.

Eguerditik iluntzera

Erronkea ordu biz luzatuko da, 12:00etatik 14:00etara, hain zuzen be. Lehenengo orduan, herrian zehar, eskutik helduta, katea sortzean ibiliko dira. Lasarte parketik abiatuko da katea, eskola eta institutuko ikasleakaz, besteak beste. Gero ibilbidean, hainbat puntutan, alkarreetako jentea egongo da eta handik pasaukeran gehituko dira katera. Eingo eta Musika Eskolako ikasleek girotuko dabe ibilbidea eta Zuztertxu eta Galtzagorrien laguntzea izango dabe dana ondo joan daiten.

Kate-kiribila futbol zelaian egingo da eta hara 13:00etan ailegetea aurreikusten da. Harmailak prest egongo dira publikoarentzat eta drone bategaz grabauko da ekintzea.

Futbol zelai erdian eszenaleku txiki bat egongo da, kiribil erdian geratuko dana eta kiribila egin ostean, Arantzartekoek aureskua jantzan egin eta beste ekitaldixoak egiteko. "Eskutik helduta sartzean garanok hasiko gara bueltak emoten kiribila sortzeako. Zelaian, persona batzuk, lurrean etzanda, "Euskerea" berbea osotuko dabe, gero goitik, droneak grabauta ikusiko dana" azaldu deutso BEGITURI Igorreko euskera teknikariak.

Futbol zelaitik, barriro be musikaz lagunduta, Lasarte parkera joango dira barriro parte-hartzaileak, bazkaltzeko. 15:00etan izango da herri bazkaria, eta bazkalos-

tean, 16:30ean inguruan, Eingo taldea egongo da giroa animetan.

Gero, 19:00etan, andrazkoen Bizkaiko Trontza Txapelketea jokatuko da eta herri kirol erakustaldiak egongo dira. Trontza Txapelketan, Ainize Perezek eta Esti Mesegierrek osotutako bikotea, Oiane Gonzalez eta Iraide Gezuragaren kontra neurtuko da.

Trontza Txapelketearen ostean, Leire Astoreka eta Jon Gisasola "Zelai V." harri-jasotzaileek erakustaldiak egingo ditue. Dimako Txabila Kirol Klubeko Jose Martin Bustinza "Tubi" handiak be lasto botatze eta lasto jasotze erakustaldiak egingo ditu.

Igaz ez bezala, jai osoa grabauko da, ez bakarrik erronkea. Erronkea, droneagaz grabauko da eta grabazino hau abenduaren 3an, Euskerearen egunean, erakutsiko da.

Parte hartzeako deia

Erronkan parte hartzera animetako, 20 segundoko promozino bideoa grabauko da ETB eta beste hedabideetarako eta sare sozialetan zabalduteko minutu batetako. "Urri lehenengoaren 20a Igorren egun ahaztezina izatea gura dogu, euskerearen eta gure jentearen indarra erakutsiko dauan jai, batasun eta parte-hartze eguna. Arratiako eta kanpoko herritar guztiak erronka honegaz bat egitera animetan doguz, kiribilak danon artean eregiten badogu bakarrik izango daua-lako zentzua" azpimarratu dabe Udaletik.

ZEBERIO

Zeberioko Udalak Bizenta Ipiña zoriondu dau bere 105. urtebetetzean

Erredakzinoa

Jaien balorazino ona egin dau Udalak, "oso ondo atera da dana, ezelango gorabehera barik". Udalaren arabera, jaietako ekitaldi garrantzitsuenetako bat, urri lehenengoaren 1ean, 105 urte bete zituan Bizenta Ipiña herritarri lo-reak eroatea eta bere familia eta lagunakaz egotea izan zan.

Testu bat be irakurri eutsien Bizentari udal ordezkariak. "Bizenta

Ipiña andreari: Zeberioko Udaletik ohore handia da guretzat, Areiltzako Presalden jaiotako Bizenta Ipiña Hierro-Olabarriari, bere jaiotzearen 105. urteurrenean agur bat, mosu bat eta lore honeek eskaintzera etortea. Udalaren izenean eta Zeberioko biztaleen ordezkari moduan, zure senide maiteen artean zera opatu gura deusugu: osasuna, alaitasuna eta egun gehiagotan zure bizitza luzeaz disfrutetea. Zorionak Bizenta!"



IGORRE

Barriz atzeratu dabe Igorreko Kiñu Gaztetearen kontrako epaiketea

Erredakzinoa

Hilaren 15ean egin behar zan Durangoko epaitegian Igorreko Kiñu Gaztetea okupauta daukien gazteen eta Sabadell Banketxearen arteko epaiketea. Egun batzuk arinago baina, asanbladeak jakinarazpen bat jaso eban, epaiketea 2026ko urtailaren 27ra arte atzeratuko zala esanez. Holan, gehiago atzeratu da jada bost urtez luzatu dan prozesu judiziala. Bost urte honeetan egingo dan hirugarren epaiketea izango da urtailetako, lehenengora ez ziran-ta Sabadelleko abogaduak aurkeztu eta bigarrean, Kiñuko abogaduek epaia atzeratutea lortu ebelako.

Gazte asanbladatik zabaldu daben komunikaduan adierazo dabe, "atzerapen hau barri ona" dala. Izan be, gitxienez beste lau hilez egongo da gaztetea gazteen eskuetan, kontzertu, berbaldi, ekitaldi eta bestelango jarduerak egiten segidu ahal izateko. Halanda be, "prozesu hau luze eta kantsagarri izaten dabilela" onartuten daben arren, eskerrak emon deusez "alkartasun kinuak" egin dabezan guztiei eta oin, "burrukan segiduteko" beharizana azpimarratu dabe. Holan, oingo egoerea azaldu eta hurrengo pausuak ebazteko, asanblada irekia egingo dabe hilaren 19an, gaztetearen bertan, 18:00etan.



ARRATIA

Sanmigelak, auzo ugaritako jaiak hile amaieran

Uda pasauta, oindino be geratzen dira jairen batzuk, formatu txikikoak, auzokoak. Euren artean San Migel. San Migel izenpeko ermita asko dagoz Arratian eta inguruko auzoetan ospatuten da.

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 29a astelehena da aurten eta, orokorrean, aurreko edo osteko astegoienean ospatuko dira jaiak. Askotan, izenpeko ermitan mezea eta ostean musikaz lagundutako barauskariagaz. Holan egingo da Arteako Elexabeitin, esate baterako. Igorreko Mikele auzoan eta Zeanuriko Uribe eta Alzustako auzuneetan San Migel ermitak dagoz. Uriben, San Migel egunaren aurreko astegoienean eta Alzustan, egun berean eta osteko astegoienean ospatuko ditue. Bediako Jauregi-Yeuri auzunean be ospatuten ditue San Migel jaiak.

Uribe (Zeanuri)
Urri lehenengoak 20, zapatua
14:00etan, auzo bazkaria.
Arrastian Mus eta Briska Txapelketak.

Urri lehenengoak 21, domekea
11:30ean, mezea. Ostean barauskarria eta herriko txistulariak.

Urri lehenengoak 22, astelehena
12:00etan, mezea.
17:00etan, urdaia eta txokolatea, jan ahala.

Alzustata (Zeanuri)
Urri lehenengoak 29, astelehena
11:00etan, mezea eta ostean txistulariak.

Urri bigarrenak 4, zapatua
14:00etan, auzo bazkaria.



16:45ean, Briska Txapelketarako izen-emotea.
17:00etan, Briska Txapelketea.
17:30ean, bola jokoa.
19:00etan, Kittu erromeria, bitartean mokautxoa danontzat.

Urri bigarrenak 5, domekea
16:00etan, Mus Txapelketarako izen-emotea.
16:30ean, Mus Txapelketea.

Garbe (Igorre)
Urri lehenengoak 26, barikua
19:00etan, Igorre Kantuen. Ostean, parrilladea.

Urri lehenengoak 27, zapatua
20:30ean, Txapela Brava taldea.

Urri lehenengoak 29, astelehena
12:00etan, mezea. Ostean, barauskarria eta herriko trikitilariak.

Jauregi-Yeuri (Bedia)
Urri lehenengoak 27, zapatua
12:00etan, pintxo-potea.
13:00etan, Igel Txapelketea.
14:30ean, paella herrikoia.
16:30ean, zozketak.
17:00etan, Mus eta Briska Txapelketak.
20:00etan, txokolatea eta bingoa.
22:00etan, musikea.

Urri lehenengoak 28, domekea
14:00etan, X. Pintxo Lehiaketeta.

Elexabeiti (Artea)
Urri lehenengoak 29, astelehena
12:00etan, mezea. Ostean, barauskarria.

ZEANURI

Apurtuta agertu ziran Gorbeiaiko kurutzea eta orientazino mahaia

Abuztuaren 28ko goizaldean Gorbeiaiko kurutzea eta alboan dagoan orientazino mahaia, Euskal Autonomia Erkidegoko zaharrena, kaltetuta agertu ziran. Kurutzean goiko puntako zatitxo bat zerratuta eta harrizkoa dan orientazino mahaia oinarria guztiz apurtuta egozala salatu eban Iñaki Garcia Uribe mendizaleak DEIA.

Erredakzinoa

Honen ustez, kurutze ondoko orientazino mahaia oinarria palanka bategaz edo desegin eben eta "bandalismo" ekintzat hartu da gertakerea. Zeanuriko alkate dan Nahia Urrutxuak BEGITU azaldu dau Gorbeiaiko Parke Naturalaren Bizkaiko arduradunagaz berba egin dauala eta datarik zehaztu ez dan arren, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiek batera hartuko dabe kalteak konponduteko ardurea. Gainera, alkateak aurreratu dau,



Aldundiaren partetik ez dagoala hain argi bandalismo ekintza bat izan dan: "Animaliak izan ahal izan dirala uste dabe, ganadua".

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Begitu-lagun egiteak saria dauka



Erredakzinoa

Garena jatetxeko bi personarentzako Gurea menua edo Zeanuriko Zuhaitz Etxeetan lagun birentzako gaua eta gosaria dira zozketatuten diran sariak. BEGITU martxan dauka Begitu-lagun barriak egiteko kanpaina, aurtengo bigarrena, hori dala-ta abenduaren 20ra arte Begitu-

lagun egiten diranen edo Begitu-lagun izan eta lagun bat ekarten dabenen artean sari potolo bi zozketatuko ditu. BEGITUREN asmoa eten barik hobetzea da eta bere baliabide ekonomikoak indartuteko, proiektua diruz lagunduko daben lagunak behar ditu, BEGITU bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eusteko. Proiektua aurrera

eroan ahal izateko diru sarrerak handitu behar ditu Arratia, Ubide eta Zeberio aldirak. Bi modu dagoz Begitu-lagun egiteko, batetik www.begitu.eus/bazkidetu estekan sartu eta datuak beteta, edo paperezko BEGITU iragarkia bete eta bertan ipinten dauan posta arruntera edo datuak begitu@begitu.eus helbidera bialduta. BEGITUENTZAKO finanziaizino iturri garrantzitsua dira Begitu-lagunak, horregaitik Begitu-lagun egiteak beste sari batzuk be badaukaz eta lagun barriek BEGITUREN hainbat produktu jasoten ditue, Zertu Kultur Elkartek argitaratutako 6 liburu, tartean. Hamabostero be BEGITU egiten diran zozketetan (zinea, antzerkia, produktuak, kontzertuak...) hartzean dabe parte aldirakaren lagunak.

Begitu-lagun barrientzako sariak
Begitu-lagun egin ezker, edo Begitu-laguna izan eta barri bat lortu ezker, biak sartzean dira zozketan, sari bi honeek zozketatuko dira:
1-. Lamindaoko (Dima) GARENA jatetxean Gurea menua lagun birentzako.
2-. Zeanuriko Zuhaitz Etxeetan gaua eta gosaria lagun birentzako.

PALESTINA

Nazinoarteak Israeleri presino egiteko helburuagaz, mobilizazinoak ez dira eteten

Mundua Gazako genozidioaren kontrako oihu bat da eta politikariek ezin dabe entzungor egin.



Arratian herri guztietan egin zan konzentrazinoa Gernika Palestina ekimenak antolatuta hilaren 5ean.

Erredakzinoa

Oin arte, asko jota, hutsean geratzen diran berbak eta neurri epelak baino ez dabez hartu. Atzen urte biotan, 2023ko urri bigarrenaren 7a ezkerotzik, Israel, inpunidade osoz, sarraskiari ekin eutsanetik, ez Erkidegoan, ez estaduan, ez Europan ez da neurri eraginkorrik hartu genozidioa geldituteko.

Albistegietan, egunero ikusten doguz uri suntsitu, hildako eta gosez hiltzen dagozan palestinarren irudiak. Baita Benjamin Netanyahu Israelgo Lehen Ministroak Gazako biztanleen eta eurakaz solidarizau egiten diran guztien kontrako mehatxu edo erasoak be. Izan be, kazetarien lanari esker, mundua genozidioa zuzenean dabil ikusten. Baita Palestinako banderak astinduta edozein herrialdetako herritarrek egiten dabezan protestak be.

Hori gertatu ez daiten, Israel, nazinoarteko prensari sartzeako debekua ipini deutso eta kazetari palestinarrek erailten jarraituten dau. 2023tik 256 kazetari hil ditu Israel. Abuztuan, beste batzuen artean, Anas al-Sahrif, Mohamed Qreiqeh, Ibrahim Zaher, Mohammed Nougat, Moamen Aliwa, Hussan al-Masri, Mohammad Salama, Mariam Abu Dagga, Moaz Abu Taha, Ahmed Abu Aziz eta Hassan Douhan. Hori dala-ta, RSFk (Reporteros Sin Fronteras) eta Avaaz-ek Israel, kazetari palestinarren kontra inpunidade osoz egindako hilketak salatu-teko mobilizazino mediatikoa antolatu eban hilaren 1ean. 50 herrialdetako 150 hedabide baino gehiagok hartu eben parte "Israelgo armadak hiltzen jarraitzen badau, laster ez da bat bera be

2023tik 256 kazetari hil ditu Israel. Abuztuan, beste batzuen artean, Anas al-Sahrif, Mohamed Qreiqeh, Ibrahim Zaher, Mohammed Nougat, Moamen Aliwa, Hussan al-Masri, Mohammad Salama, Mariam Abu Dagga, Moaz Abu Taha, Ahmed Abu Aziz eta Hassan Douhan

geldituko Gazan informazioa emoteko" lemapean. Eta Nazinoarteko Auzitegi Penalean lau salaketa aurkeztu dabez, Israelgo armadak, Gazako Zerrendan kazetarien kontra egindako gerra krimenakaitik. "Israelgo armadak kazetarien kontra egindako sarraskia, sistematikoa eta gurata egindakoa da. Eta inpunidade osoz egiten da, Nazinoarteko Zuzenbide humanitarioaren printzipio guztiak urratuz" azaldu eben komunikadu baten ekimenaren bultzatzaileek. Kazetari palestina-

ren lana ezinbestekoa da Israelen krimenak dokumentetako. Eta beste herrialdeetakoena, protesten barri emoteko.

Nazinoarteko ezinbestekoa presinoa

Politikariak beste alde batera begiratzen saiatu arren, jentea ez da geldi eta isilik geratu urte bi honeetan eta denporeak aurrera egin ahala, Palestinaren aldeko alkarteak eta ekimenak ugaritu dira, bazter guztietan, Arratia, Ubi-de eta Zeberion barne.

INBIU EGUNA

IRAILAK 20

12:00 - 14:00
Euskararen alde Euskal Herrian egin den kate-kiribil luzeena

- Igarren zehar, Lasarte parkean kateari hasiera emango diogu eta futbol-zelaian kiribila egingo dugu.
- 13:00ean Gradetan ikusle bezala egon zaitezke.
- Dronarekin grabatuko da.
- Euria egiten badu, frontoian.

15:00
Herri bazkaria. Lasarte parkean*.

16:30
EINGOk girotutako bazkalostea. Lasarte parkean*.

19:00
Bizkaiko Emakumezkoen Trontza Txapelketa ofiziala eta harri-jasotzaile eta lasto-jasotze eta botatzearen erakustaldiak. Lasarte parkean*.

TIKETAK SALGAI

- Jubilatuenean
- Eguzkin
- Donibaneen

ANIMATU ETA PARTE HARTU!

ERAKUSTALDIK:

Harri-jasotzea:
Leire Astoreka (Gernikako Arkupe Sustabiz Kirol Elkarte)
Jon Gisasola "Zelai V" (Mallabiko Txondor Herri Kirol Taldea)

Lasto-jasotze eta botatzea:
Jose Martin Bustinza "Tubi" (Dimako Txabila Kirol Kluba)

Emakumezkoen Trontza Txapelketa ofiziala:
Ainze Pérez (Urtza Herri Kirol Taldea)-Esti Meseguer (Getxo Herri Kirol Taldea)
Oiane González- Iraide Gezuraga (Arratzuko Piratak Herri Kirol Taldea)

***Euria egiten badu, eskolako aterpean.**





EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN ETA SARI POTOLO HONEEK IRABAZI!

Begitu-lagun egin ezker, edo Begitu-laguna izan eta barri bat ekarten badozu (biak sartzean dira zozketan) abenduaren 20ra arte arte bi sari honeen zozketan parte hartuko dozu:

SARIAK

A



Zeanuriko Zuhaitz Etxeetan gaua eta gosaria lagun birentzako.



Ondino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta baldu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€

Edo e-mailez, baldu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

B

GARENA

Dimako **Garena** jatetxean **Gurea** menua lagun birentzako.




PELOTEA

Aldaik eta Bergarak garaipena behar dabe finalerako sailkatzeko

Erredakzinoa

Amaia Aldai eta Arrate Bergara, Udako Master Laboral Kutxa torneoko lehenengo fasea gainditu ostean, finalerako txartela lortzeako Urrezko Ligan dagoz murgilduta. Partidu bi jokatu ditue daborduko eta bata irabazi eta bigarrena galdu ostean, datorren partidua irabazi behar dabe, "bai ala bai" adierazo dau Aldaik BEGITU, hilaren 28an Bermeon jokatuiko dan finalerako txartela eskuratuteko.

Hilaren 6an jokatu eben Di-

makoak eta Tuterakoak Urrezko Ligako lehenengo jardunaldia. Olatz Arribazalaga eta Nora Mendizabalen kontra jokatu eben eta aurrelariaren esanetan "partidu serioa eta ona" jokatuta, 22-13 irabazi eben. Bigarrena hilaren 12an jokatu zan, "partidu oso gogorra" izan zan, ordu bat eta hamar minutukoa eta atzenean galdu egin eben Aldaik eta Bergarak, 22-20, Ibarrola eta Gaminderen kontra. Hirugarrena hilaren 18an jokatuiko dabe Galdakaon, Arraiza eta Capellanen kontra.



FRONTENISA

Irati Artarazek eta Nerea Izagirrek jantzi eben I. Arteako Andrazkoen Fronteniseko txapela

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 7an, Jai Batzordeak eta Kafrangak Arteako talde feministek antolatutako I. Arteako Andrazkoen Frontenis Txapelketako finala jokatu zan. Kattalin Urrutxua eta Leire Etxebarria zeaturiztarak, Irati Artaraz Bediakoa eta Nerea Izagirre Busturiakoaren kontra neurtu ziran. Bediakoak eta Busturiakoak irabazi eben, 22-8 emaitzagaz. Lau finalistek otzara bana eroan eben saritzat. Frontoia beteta egon zan, 100 bat lagun alkartu ziran final handia ikusteko. Frontoiaren sarreran pankarta bat eskegi eben Kafrangak taldekoek "Izan zirelako gara. Gora borroka feminista!" lelopean. Izan be, txapelketea Carmen Mada-

riaga Bustinzari omenaldia egiteko aprobetxau gura izan dabe antolatzaileek, omendua 7 urtez (1942-1949 urte bitartean) erraketista profesionala izan zalako. Hori dala-ta, Kafrangak taldeak proposamena egin deutso Udalarai etorkizunean Carmen Madariaga erraketistearen omenezko oroigarri finkoa ipinteko frontoian, eta merezi dauan lekua emoteko. Urri bigarrenetik aurrera ekingo deusie oroigarria definiduteari herriko talde feministek eta Udalak alkarlanean. Txapelketan 17 bikotek hartu eben parte; aprilan hasi zan txapelketea eta urri lehenenegoan amaitu da. Parte-hartzaileak eta antolatzaileak pozik agertu dira eta datorren urtean errepikatuteko gogoagaz.



Leire Etxebarria, Kattalin Urrutxua, Nerea Izagirre eta Irati Artaraz.

MENDIA

Beste behin munduko mendi lasterkari onenak batuko dira Zeanuriko Gorbeia Suzien Skyrace mendi lasterketan

Hilaren 27an izango da Gorbeia Suzien Skyrace 32 kilometroko mendi lasterketa gogorra, baita, Gorbeia Suzien 21 km-koa be. Sari banaketea 14:30ean izango da. Hurrengo egunean umeen lasterketea egongo da.



Erredakzinoa

Sortu zanetik, 13 urte honeetan, izen handia hartu dau Zeanuriko lasterketeak nazinoartean be eta World Series-etako puntuagarria dan lasterketarako 1.500 lasterkari apuntau ziran eta 500 plaza dagoz. Lasterketa laburrerako dorsalak be 10 minututan agortu ziran eta lasterketa bietan, itxaron zerrenda luzeak dagoz. Beraz, duda barik, aurten be ikusmin handia sortuko dabe Gorbeia Suzien lasterketek. Lasterketak ikustera joateko autobus zerbitzua egongo da. EITBn euskeraz eta Internet bidez Sws kanalean ingelesez eta Evasion TVn gaztelaniaz ikusteko aukerak be egongo dira. Lasterketearen inguruko jarduerak, hilaren 19an hasiko dira Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoan egingo dan *The Mountain Family: relatos montañosos basados en hechos reales* liburuaren aurkezpenagaz.

Urri lehenengoak 19, barikua
19:00etan, *The Mountain Family: relatos montañosos basados en hechos reales* liburuaren aurkezpena Igorreko Kultur Etxean. Txuma Perez Azaceta, Ramon Malkorra eta Kepa Lizarraga egongo dira solasaldi eta sinadura saioan. Ekitaldi solidarioa izango da eta batutako dirua, SOS Himalaya – Iñaki Ochoa de Olza Fundazioaren proiektuentzako izango da.

Lehen aitatu lez, lasterketea ikusteko autobus zerbitzua egongo da Areatzatik eta Zeanuritik Pagomakurrera eta Pagomakurretik Areatzara eta Zeanurira, goizeko 07:00etatik arrastiko 16:00ak arte.

- Urri lehenengoak 26, barikua**
17:30etik 20:00etara, dorsal banaketea Zeanuriko frontoian. 19:00etan, *briefing*-a, berbaldi teknikoak.
- Urri lehenengoak 27, zapatua**
07:00etatik 08:30era, dorsal banaketea. 09:00etan, Gorbeia Suzien Skyrace lasterketearen urtekerea. 11:00etan, Gorbeia Suzien 21K lasterketearen urtekerea. 13:00etatik 16:30era, parte-hartzaileentzako bazkaria frontoian. 14:30ean, sari banaketea. 16:30etik 18:30era, Uxue eta Satur. Musika emonaldia. 18:00etan, herri kirolak. Tubi... 19:00etan, Joselontxos txarangea. Kale musikea. 23:00etan, DJ Lander.
- Urri lehenengoak 28, domekea**
11:00etan, umeen lasterketarako izen-emotea. 12:00etan, umeen lasterketearen urtekerea.



MENDIA

Areatzako Mendi Martxan parte hartzeako izena emoteko atzen eguna hilaren 25a da

Urri bigarrenaren 4an jokatu da Areatzako XII. Mendi Martxea.

Erredakzinoa

Hiru ibilbide dagoz: 12 km, 19 km eta 27 km-koa, hain zuzen be, eta egunean bertan ezin da izenik emon. Izena hilaren 25era arte emon daiteke www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/areatzako-mendi-martxa-2025 helbidean.

Goizeko 08:00retan ekingo deusie ibilbideari ibilbide luzea eta ertaina aukeratu daben partaideek. Luzea egin behar dabenak plazatik urtengo dira eta ertaina egitekoa diranak, antolakuntzeak ipinitako autobusean joango dira Bikotzganera, handik hasteko. Plazan egongo da markauta autobusak non hartu behar diran. Ibilbide laburreko martxalariak, 09:00etan urtengo dira plazatik, ibilbideari ekiteko. Aurten be, inoz erabili bako bizpahiru bide zabaldu dira martxarako.

Amaieran, pintxo-potea eta musikea egongo dira plazan. Balneario Areatzak, Ortu Kirolak eta Keixara gaztaiak emondako opariak be zozketatuko dira.

Izen-emoteak eta kamisetak
Igaz 388 lagunek hartu eben par-

FUTBOLA

Ligea hastera doa

Erredakzinoa

Arratiako futbol taldeen nagusien tadeek, andrazkoen Arratia Bk izan ezik, hilaren hirugarren astegoienan hasiko dabez euren ligak.

Andrazkoen Arratia A taldeak 3. RFEF Mailako laugarren moltsoan jokatu dau, igaz pausutxo bat baino ez jakien falta izan mailaz igoteko. Aurten 3. RFEF-eko 18 moltso dagoz estadu mailan eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako taldeen kontra jokatu dau laugarren moltso horretan. 12 taldek osotzen dabe moltso hori. Lehenengo partidua hilaren 20an jokatu dau etxetik kanpo Tolosa taldearen kontra, 17:00etan.

te Areatzako Mendi Martxan eta aurten, urri lehenengoaren 10era arte, 120 personek emon dabe izena.

Ibilbide luzea (27 km eta 3 anoagune) eta ertaina (19 km eta 2 anoagune) egiteko izen-emoteak 20 euroko prezioa dauka 14 urtetik gorakoentzat, eta 15 eurokoa, 14 urte artekoentzat. Laburrerako izena emoten dabenek barriz, 15 eta 10 euro ordaindu behar dabe hurrengo hurrengo.

Mendi martxea egin barik kamisetak erosteko aukerea be badago. 15 euroko prezioa dauka eta hau be, rockthesport webgunea erosi daiteke.

Kamisetak, anoaguneak, autobusetan sartzeako eta amaierako pintxo-potea hartzeako txartel-tarjetoia mendi martxearen aurreko egunean hartzeako aukerea be egongo da.



Gizonezkoen Arratia A taldeak Lehenentasunezko Mailan jokatu dau aurten, igaz goiko postuetan ibili zan Igorreko taldea. Lehenengo partidua hilaren 21ean jokatu dau etxetik kanpo Basurto A taldearen kontra, 11:30ean.

Gizonezkoen Arratia B taldeak Lehenengo Mailako bigarren moltsoan jokatu dau, taularen erdikaldean amaitu eban 24/25 denporaldia. Lehenengo partidua hilaren 20an jokatu dau etxean Acero taldearen kontra, 19:30ean.

Lemoako Harrobi taldeak be Lehenengo Mailako bigarren moltsoan jokatu dau, taularen erdikaldean amaitu eban 24/25 denporaldia, hasikerea ona izan ez bazan be. Lehenengo partidua hilaren 20an jokatu dau etxetik kanpo Elorrio A taldearen kontra, 17:00etan.

Andrazkoen Arratia B taldeak oster a urri lehenengoaren lehen astegoienan jokatu dau ligako lehen partidua Urbietan, Peña Ath. Santurtzi B taldearen kontra.

PELOTEA

Euskal Selekzinoak zazpi domina lortu dauz Munduko Wallball Txapelketan

Sei jokalaria eta entrenatzaile bik osatu dabe selekzinoa eta euren artean, lau arratiar egon dira "lorpen historiko" honetan.



Erredakzinoa

Jokalaria moduan Mikel Beldarrain arteaztarra, Mikel Aurrekoetxea lemoaztarra eta Lur Ziarrusta dimoztarra egon dira, eta entrenatzaile, Ekhi Ziarrusta dimoztarra.

Txapelketea Leeuward-en (Herbehereak) jokatu zan abuztuaren 26tik 30era. Zazpi herrialde lehiatu ziran Esku Pelotako Nazinoarteko Konfederazinoak antolatutako txapelketan: Euskal Selekzinoa, Argentina, Belgika, Erresuma Batua, Valentzia, Herbehereak eta Puerto Rico.

Euskal pelotariet protagonista osoa izan eben, bost finaletan parte hartuta. Bikote mistoen finalean Lur Ziarrusta eta Miren Larrarte urten ziran garaile set bi (21-19 eta 21-15) irabazita, Jurrit Osinga eta Marrit Zeinstra herbeherezta-

rreren kontra. Andrazkoen banakako finalean, finalista biak izan ziran euskaldunak eta Olatz Arrizabalaga nagusitu zan Miren Larrarteren aurka (16-21, 21-3 eta 6-11). Bardina gertatu zan gizonezkoen banakakoan, Mikel Beldarrain eta Egoitz Amantegi egon ziran aurrez aurre eta Arteakoa izan zan garaile (21-10 eta 21-19).

Andrazkoen bikoteen finalean baino ez eben kale egin euskaldunek. Miren Larrarte eta Olatz Arrizabalagak Marrit eta Hiske Zeintra herbeherear ahizten kontra aritu ziran eta atzen honeek irabazi eben (21-14 eta 21-12), euskaldunentzako zidarrezko domina itxita. Atzen finala gizonezkoen binakakoa izan zan. Lur Ziarrusta eta Mikel Beldarrain urten ziran garaile (21-19 eta 21-12), Luke Thomson eta Christian Blackaby

Domina ugari lortu dabez Malen Lamadrdek eta Dorkaitz Meabek

Erredakzinoa

Ath-en (Belgika) jokaturako Europako Junior Pelota Txapelketan Euskal Selekzinoak garaipen historikoa lortu dau: lau urre, bost zidar eta brontze bat. Taldean hiru arratiar egon dira: Txumuluxuetako Malen Lamadrid eta Dorkaitz Meabe pelotariak eta Lur Ziarrusta entrenatzailea.

Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzeak azpimarratu dauanez, "ikaragarria izan da gure gazteen emaitza", izan be, Euskal Selekzinoa izan da txapelketako domina gehien batu dauana eta selekzino onenaren saria be irabazi dau, jokalaria onenaren sariagaz batera.

Meabek urrezko dominea eskuratu dau Joko Internazionalean eta beste bi zidar Onewallean eta Llagueseon. Lamadrdek, barriz, Joko Internazionalean zidarra eta Llagueseon brontzea lortu ditu, eta 17

britainiarren kontra.

Euskal Selekzinoaren nagusitasuna

Emaitzez gainera, Euskal Selekzinoak nagusitasun itxurea emon ebala uste dau Ekhi Ziarrusta entrenatzaileak. "Taldea moduan Euskal Selekzinoa indartsu urten zan eta esango neuke txapelketa honetan egin dan hautaketa zein entrenamentu faseei emon jakien garrantzia, berezia izan dala eta emaitzetan hori ikusi dala" azaldu deutso BEGITORI. "Azpimarratu gurako neuke Lur Ziarrusta eta Mikel Beldarrainen hautua, ze honeek badaroez urte eta piku euren pelota modalidade printzipala Wallballa izanda. Eta pelotari bi horreek egoteak ba entrenamentu maila be igon egin dau. Eta Mikel Aurrekoetxea lemoaztarrak euki dauan inplikazinoari goi mailako pelotari bi horreekaz, lortu dogu hilebete bitan, Mikel Aurrekoetxea bat, mundu mailako txapelketan onenatarikoa izatea. Arratiarrei begira Lur eta Mikel Beldarrainen gorakadea nabarmendu gura dot, momentu honetan munduko jokalaririk onenetakoak dira-ta, Ameriketako jokariak be kontuan eukinda; eta Mikel Aurrekoetxea be aitatu gura dot, ze beste modalidade batzuetan, ezker paretan eta trinketean lehiatzen dan arren, Wallballean daukan potentziala erakutsi dau".



BERBALDIA

Iratxe Etxebarria *coach* arratiarrak berbaldia egingo dau Diman

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 18an, 19:00etan, Iratxe Etxebarriak *Bizirik bizitzeko, antolatu!* izeneko berbaldia egingo dau Dimako eskolan. Iratxe Etxebarria EITBko kazetaria lanaren ardureak jota gaixotu egin zan. Sendatze prozesuan ikasitakoa beste batzuentzat lagungarria izan

daitekela-ta, 7.300 miligramo *eszitalopram* liburua idatzi eta *coaching* lanetara dediketan da oin. Dimako berbaldian, ondo egoteko lagungarri izan daitekezan hausnarketak egingo dauz eta gai honeek egongo dira mahai gainean: gure bizitzaren xedea zehaztu, motibazioa eta borondatea, ohiturak eta antolatu eta ekin, besteak beste.



IPUIN KONTAKETEA

Heriotzea eta doluaren gaineko umeentzako ipuin kontaketea Kotxepinen

Erredakzinoa

Hilaren 24an, 18:30ean, Manex Beristain Agirre ipuin kontalaria, *Tximeletaran bidaia* ipuin kontaketea egingo dau Lemoako Kotxepin Kultur Etxean 6 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Heriotzea eta doluaren gaineko ipuin kontaketea izango da. Saioa, kandlearen argia isiotuz hasiko da, gure barruko argiaren metafora moduan. Tximeleta zuriak hartuko dau

su horren testigua eta oroitzapenen bidaia bat hasiko dau, hainbat galderari lekua eginez, eta kultura desbardinetan heriotzeari zelan begiratzen jakon begiratzuz. Errespetu eta konfiantzazko espazio seguru bat sortu eta umeek dakarrenari lekua egingo deutso kontalaria. Manex Beristainek, ipuin kontaketez gainera, heriotza eta dolu tailerrak, barreterapia tailerrak eta psikomotrizidade saioak be emoten ditu.



JANTZA IKUSKIZUNA

Tio Teronen Semeak jantza taldeak eskola sasoiaren inguruko ikuskizuna eskainiko dau Ubiden



Erredakzinoa

Hilaren 20an, 18:00etan, Tio Teronen Semeak jantza taldeak *Haurreskolari*, bere atzen lana,

eskainiko dau Ubideko plazan. Bere beste ikuskizun guztietan legez, honetan be, taldeak umorea egiten dau jantzearen bitartez eta zuzeneko musikea-

gaz. Ikuskizun honegaz "eskolara bueltetan dira" jantzariak eta publikoa, eta mundu guztiak bizi izan dauanez eskola sasoi, barre egiteko, ondo pasetako eta orduko sasoi gogora ekarteko aukera ezin hobea da Ubidekoa.

Sinopsia

Gure kuadrilla xelebrea ikastetxera bueltau da! Bertan, gure bizitzaren parte izan diran egoera eta doinuen bitartez, momentu ahaztuezinak bizibarrutuko ditue. Ikasitakoa desikasten saiatuko dira, ikusleen eskutik, ikasketa prozesu barri bat umorez eregitteko asmoz.

KONTZERTUA

Irati Castrok umeentzako kontzertu pedagogikoa eskainiko dau Lemoan

Erredakzinoa

Irati Castro biola eta bibolin-joleak, 2 eta 12 urte bitarteko umeentzako *Eko eta itsasoa* kontzertu pedagogikoa eskainiko dau urri lehenengoaren 26an, 18:30ean, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.

Eko izaki magikoa da, eta musikearen eta kantuaren bidez aurre egingo deutse itsasoari eragiten deusien arriskuei. Publikoagaz eta musikariakaz batera, kutsadurearen, itsas ekosistema beteten daben plastikoen eta aldaketa klimatikoaren kontra burruka egiten ikasiko

dabe umeek. Horretarako, arazoak eta horreek izan leikiezan konponbideak azalduko dabez artistek. Umorez, kantua, gorputz perkusinoa eta taldelanaz baliatuz, itsasoari laguntzen eta natureagaz harmonian biziten ikasiko dabe kontzertura hurre-ratzen diranek.

IKASTAROAK

Ikastaroetan izen-emotea zabalik

Erredakzinoa

Batez be, ariketa fisikoa sustatzeko eta edadekoei eta umei zuzendutako eskaintzea egin dabe udalek. Oindino Areatza, Artea eta Bediako ikastaroetarako izena emon daiteke 18 eta 19arte eta Lemoan hile osoan zehar. Arantzazu eta Zeanuriko Udalek aurkeztu dabez euren ikastaroak. Udal ikastaroez gainera, mota guztietako eskolek be eskaintzen ditue euren ikastaroak eta herriko jantza taldeetan, musika eskoletan, euskaltegian, kiroldegian, buztzingintzan, jostintzan... edo beste ikastaro ugaritan izena emoteko momentua da ikasturte hasikerea.

Arantzazu

Hilaren 26ra arte emon daiteke izena udaletxean, Arantzazuko

ikastaroetara joateko. *Entrenamentu funtzionala, Sukaldaritza, Mantentze gimnasia, Luzaketak* eta *Yoga* dira Arantzazun egin daitekezanak 2025-2026 ikasturtean.

Zeanuri

Urri lehenengoa amaitu arte, zabalik dago Zeanuriko ikastaroetan izena emoteko epea udaletxean eta honeek dira ikastaroak: *Pilates, Entrenamendu funtzionala, Umeentzako dantza, Adinekoentzako gimnasia, Adimen susperketa eta eskulanak* (Gurutze Gorria), *Mantenimenduko gimnasia* eta *Euskara eskolak*. Euskera eskolak A1 mailatik aurrera izango dira. Edadekoek ikastaroetara joan-etorriak egiteko garraioa behar badabe 609 610 855 telefonoan eskatu behar dabe.

Aikoren jantza ikastaroa

Aikok ikastaro barria eskainiko dau urri bigarrenetik bagilera bitartean: jantza ikastaro ibiltaria Arratian, hain zuzen. Domeketan izango da arrastiz. Maila bi egongo dira, oinarritzakoa, 17:00etan eta hobekuntzea, 18:30ean. Ikastaroa Areatzan hasiko da urri bigarrenetan eta zementarian, eta ondoren Artea, Igorre, Zeanuri eta Dima izango ditu geraldak. Urri bigarreneko saioak debaldekoak izango dira eta izena emon barik. Zementititik aurrera osterara, hilean 20 euro pagau behar dira, baina 18 eta 30 urte bitarteko gazteek debalde parte hartu ahal izango dabe. Areatza, Artea, Dima eta Zeanuriko Udalen eta Eingoren babesagaz eroango da aurrera ikastaroa. Izena www.aiko.eus webgunean edo 634 423 539 telefonon emon behar da.

BAKARRIZKETE}

Zuhaitz Gurrutxagaren
Nortasun agiria
bakarrizketea Lemoan



Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 20an, Zuhaitz Gurrutxagak bere hirugarren bakarkako lana, *Nortasun agiria*, ekarriko dau Lemoako Kotxepin Kultur Etxera.

Lan honetan, aurrekoetan legez, futbolari izandako eta Lemoan jokaturako ETBko aurkezle, musikari eta umoristea,

egiazko bizipen personaletan oinarrituten da. Besteak beste, bikote erlazino haustura batek sortutako minaz, euskaldun ona izatera ailegeta ze gaxa dan, edota TOC (Nahasmentu Obsesibo Kompulsiboa) gaixotasuna sufriduteak sexu harremanetan eragin leikezan buruhausteez egiten dau berba *Nortasun agiria* bakarrizketan.

psicotecnicoganguren
psikoteknikoa

- Gida Baimenak
- Animalia Arriskutsuak
- Nautika
- Arma lizentziak
- Segurtasun pribatua
- Garabiak

ORDUTEGIA
Asteazken eta ostegunetan
09:00 - 13:00
Astelehen, astearte eta ostegunetan
16:00 - 20:00

www.psicotecnicoganguren.eus - 611 72 88 55
info@psicotecnicoganguren.eus

- LAN PUBLIKOAK
- UR ETA SANEAMENTU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

94 631 72 57

ekin@ekinsl.eus

Igorre (Bizkaia)

**Euskara
eroso ikasi
eta bizi**

Arratiako AEK
EUSKARA-IKASTAROAK
Matrikula zabalik

- Maila guztiak, azterketa ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ordutegi zabalak

Ellexalde 10, Igorre
94 631 56 57/ 607 632 916 - arratia@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzak,
maila egiaztatuz gero.

Arratiako udal guztiek
diruz lagunduta

AGENDEA

URRI LEHEN. 16
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Hilaren 26ra arte emon daiteke izena udaletxean Udalak antolatutako ikastaroetan parte hartzeako. *Entrenamentu funtzionala, Sukaldaritza, Mantentze gimnasia, Luzaketak* eta *Yoga* dira ikastaroak.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Hilaren 19ra arte emon daiteke izena udaletxean goizeko 08:00retatik 15:00etara, astelehenetan 15:30etik 17:30era be bai; edo *labur.eus/ Areatza* ikastaroak estekan, udal ikastaroetarako. Ikastaroak: *Eskulanak, Crossfit, Zumba, Spinning, Pilates, Mantenimendu gimnasia* 62 urtetik gorakoentzat, *Puntua* eta *kakorratza, Euskal dantzak, Ehoziri lanak, Joskintza, Luzaketak, Yoga* eta 12-16 urte bitartekoentzako *Dantza moderna*.

Urri lehenengoaren 25era arte, Areatzako Mendi Martxan izena emoteko epea zabalik *www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/areatzako-mendi-martxa-2025* helbidean.

Helduentzako zeramika ikastaroa Saioa Larrearen eskutik Buztinolan. Informazio gehiagorako 615 731 182.

ARRATIA

Aikoren jantza ikastaro ibiltaria urri bigarrenetik bagilera, Areatza, Artea, Dima, Igorre eta Zeanurin domeka arrastietan. Oinarrizko maila 17:00etatik 18:30era eta aurreratua 18:30etik 20:00etara. Izena emoteko: *www.aiko.eus* webgunean edo 634 423 539 telefonoan.

ARTEA

Hilaren 19ra arte emon daiteke izena udal ikastaroetan. Ikastaroak: *Zurezko talla* eta *pirograbazioa*, 3. *adineko gimnasia, Zumba, Pilates, Hipo-pilates, Entrenamentu Funtzionala, Biodantza, Akrobaziak* 2014 eta 2019 urteen bitartean jaiotakoentzat, *Irakurleen Txokoa*, 2-5 urte bitarteko umeen familientzako *Irakurketa Kluba* eta 6-8 urte bitarteko umeentzako *Irakurketa Kluba*.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Urri lehenengoaren 25era arte, bialdu daitekez argazkiak *BEGITU*ren Udako Argazki Lehiaketarako *begitu@begitu.eus* helbidera.

BEDIA

Hilaren 18ra arte, Bediako jubiladu eta pensionistentzako Udalak hilaren 25erako antolatutako Lizarrara txangorako izen-emotea Bebetekan eta urri bigarrenaren 25ean, Errioxako Baigorri bodegara bisitarako izen-emotea Bebetekan.

Hilaren 18ra arte, Udalak eratutako ikastaroetan izen-emotea Bebetekan. Ikastaroak: *Yoga, Pilates, Koroa, Euskal dantzak, Jauziri dantza taldea, Euskera ikasteko ikastaroa, Marrazketa, Gimnasia erritmikoa, Memoria kognitiboa, Lagunarteko*

digitalizazioa, Batzen-kido, Saltsa/merenge dantzak, Josten ikasten eta *Zoru pelbikoa indartzen*.

Hilaren 19ra arte, 12 urtetik gorakoentzat Gaztegunean apuntetako izen-emotea Bebetekan; izena emoteko epea zabaltzen da difusino taldean parte hartzeako eta zemendiaren 25erako eta Gabonetarako herrirako apaingarriak sortzeako tailerretarako izen-emotea Bebetekan.

16:30etik 19:30era, hilaren 19ra arte, urri bigarrenaren 11n izango dan 12 eta 26 urte bitarteko Gazteentzako Olaberria Kartingera urtekerarako izen-emotea Bebetekan.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

Lemoatx Trail martxa zein lasterketetarako inskripzioa egiteko aukerea zabalik *labur.eus/Lemoatxtrail* helbidean.

Hilean zehar Udal ikastaroetan izena emoteko epea zabalik udal webgunean. Ikastaroak: *Zoru pelbikoa eta sexualitatea, Emakumeok elkarrekin hazteko espazioa*, 8 eta 12 urte bitartekoentzat *Xakea haurtzaroan*, 6 eta 11 urte bitartekoentzat *Pentsamendu sakona garatzea*, 16 urtetik gorakoentzat, *Makilajea, Argazkigintza digitala*, 16 urtetik gorakoentzat *Informatika, Eskulanak, Euskara eskolak, Euskara merkatarientzat, Pertsona migratuentzat euskara, Bizitzak josten elkartzen duten puntadak, Esperientziak kontatzearen balioa, Bizirik bizi, Elikagaien kontserbazioa, Risoterapia* eta *Bisuteria Masterclass*.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat



Euskal jantzen inguruko
berbaldi jantzatua Diman

Urri lehenengoaren 27an, 12:00etan, Dimako Ugarana eskolako kama-ran, *Korrotik pikutara, euskal dantzaren historia dantzaren bidez kontatua* berbaldi jantzatua eskainiko dabe Oier Araolaza eta Gari Otamendi jantzariek.

Berbaldi jantzatu honegaz Araolazak eta Otamendik zein izan dan atzen hiru-lau gizaldietan euskal jantzearen bilakaera koreografikoa kontetan dabe gorputza erabiliz, hau da jantzearen bitartez.

goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

Hilaren 30era arte zabalik dago Udalak antolatutako ikastaroetan izena emoteko epea udaletxean. *Pilates, Entrenamendu funtzionala, Umeentzako dantza, Adinekoentzako gimnasia, Adimen susperketa eta eskulanak* (Gurutze Gorria), *Mantenimenduko gimnasia* eta *Euskara eskolak*. Edadekoek ikastaroetara joan-etorriak egiteko garraioa behar badabe 609 610 855 telefonoan eskatu behar da.

ZEBERIO

Liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era, martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.

17:00etatik 19:00etara, telefono mobikorrari etekin gehiago aterateko dobako oinarritzko tailerra adinekoentzat Hogarrean.

URRI LEHEN. 17
BEDIA

Auto bako eguna. 18:00etan, *Hirukokoroa itsas erronka marraztua* umeentzako ikuskizuna; 19:00etan, talde argazkia, kirol erronkea lortu dabenek oparitxo bat jasoko dabe parte-hartzea eskertzeko.

ZEBERIO

Austarri Mendi Taldeak hilaren 21erako antolatutako mendi urtekerarako *austarrimenditaldea@gmail.com* helbidean edo 665 735 054 eta 656 415 597 telefonoetan izena emoteko atzen eguna.

URRI LEHEN. 18
AREATZA

17:30ean, Jon Mentxakatorreren *Euskal mitologia* berbaldia jubiladuen lokalean.

DIMA

19:00etan, Iratxe Etxebarriaren *Bizirik bizitzeko, antolatu!* berbaldia eskolan.

IGORRE

18:00etan, Ahoztar Zelaietaren *El Pradalismo* liburuaren aurkezpena Axular Herriko Tabernan.

LEMOA

18:00etan, Joseba Olagarai eta Martxel

Larrazaren sexilioari buruzko Xerka proiektuaren berbaldia Kotxepin Kultur Etxean. Horren ostean, hilaren 25era arte argazki erakusketea egongo da.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, telefono mobikorrari etekin gehiago aterateko dobako oinarritzko tailerra adinekoentzat Hogarrean.

URRI LEHEN. 19
DIMA

19:00etan, Bariku txiki. Urtxintxa eskolearen *Patxintxiketan, urtaroen bidaia* ikuskizuna Abaroan.

IGORRE

19:00etan, *The Mountain Family: relatos montañeros basados en hechos reales* liburuaren aurkezpena. Txuma Perez Azaceta, Ramon Malkorra eta Kepa Lizarraga egongo dira solasaldi eta sinadura saioan. Kultur Etxean.

URRI LEHEN. 20
ARTEA

10:00etatik 15:00etara, Merkarteazokea; 12:00etatik 14:00etara, *photocall*-a baserritar jantzita doazenentzat; 21:00etan, Aukeran Dantza Konpainiaren *Fusioak* ikuskizuna; 23:30ean, Zutik taldeagaz erromeria.

IGORRE

Inbiu eguna. 12:00etan, Lasarte Parkean batu, 13:00etan, kate-kiribila futbol zelaian; 15:00etan, herri bazkaria; 16:30ean Eingo taldea; 19:00etan, andrazkoen Bizkaiko Trontza Txapelketea. Ostean, Leire Astoreka eta Jon Gisasola "Zelai V." harri-jasotzaileen erakustaldiak eta Jose Martin Bustinza "Tubi"k lasto botatze eta lasto jasotze erakustaldiak egingo ditu.

LEMOA

20:00etan, Zuhaitz Gurrutxagaren bakarrizketea *Nortasun agiria* Kotxepin Kultur Etxean.

UBIDE

18:00etan, Tio Teronen Semeak taldearen *Haurreskolari* jantza ikuskizuna plazan.

ZEANURI

Sanmigelak Uriben. 14:00etan, auzo bazkaria; arrastian Mus eta Briska Txapelketak.

URRI LEHEN. 21
ZEANURI

Sanmigelak Uriben. 11:30ean, mezea; ostean barauskarria eta herriko txistulariak.

ZEBERIO

08:00retan, Austarri Mendi Taldeak antolatutako mendi urtekerea. Cadagua-Canto Muriel-Cantonad-Lezana. Plazan.

URRI LEHEN. 22
BEDIA

16:30etik 19:30era, urri bigarrenaren 9ra arte, urri bigarrenaren 11n egingo dan Kolaziñotik Bediara ibilbide gidaturako izen-emotea Ludotekan.

IGORRE

11:00etatik 13:00etara, telefono mobikorra erabilten ikasteko BFAren tailerra *WhatsApp erabiltzen ikasi*. Kultur Etxean.

ZEANURI

Sanmigelak Uriben. 12:00etan mezea; 17:00etan, urdaia eta txokolatea, jan

begitu 456
2025eko urri lehenengoaren 16a

ahala.

URRI LEHEN. 24
LEMOA

18:30ean, Manex Beristainen ipuin kontaketea *Tximeletaren bidaia* Kotxepin Kultur Etxean.

URRI LEHEN. 26
BEDIA

17:00etatik 19:00etara, Liburutegia eta Ludotekea kaleratu: liburuen debaldeko azokea plazan; 18:00etatik 20:00etara, Ongi etorria Gaztegunera, giltzea eta meriendea urtebetetzeko gelan.

IGORRE

Garbeko jaiak. 19:00etan, Igorre Kantuen. Ostean, parrilladea.

LEMOA

18:30ean, kontzertu pedagogikoa *Eko eta itsasoa* Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

Gorbeia Suzien. 17:30etik 20:00etara, dorsal banaketea frontoian; 19:00etan, *briefing*-a berbaldi teknikoa.

URRI LEHEN. 27
BEDIA

Jauregi-Yeuri auzoko jaiak. 12:00etan, pintxo-potea; 13:00etan, Igel Txapelketea; 14:30ean, paella herrikoia; 16:30ean, zozketak; 17:00etan, Mus eta Briska Txapelketak; 20:00etan, txokolatea eta bingoa; 22:00etan musikea.

DIMA

Andraizeak antolatuta urtekerea Ondarroara. 09:30ean, plazan batu; 11:00etan, Boga Bogako andre antolatutako bisita gidatua; 14:30ean, bazkaria; 19:00etan, Dimara bueltea.

IGORRE

Garbeko jaiak. 20:30ean, Txapela Brava taldea.

ZEANURI

Gorbeia Suzien. 07:00retatik 08:30era dorsal banaketea; 09:00etan, Gorbeia Suzien Skyrace lasterketearen urtekerea; 11:00etan, Gorbeia Suzien 21K lasterketearen urtekerea; 13:00etatik 16:30era, lasterketetako parte-hartzaileentzako bazkaria frontoian; 14:30ean, sari banaketea; 16:30etik 18:30era, Uxue eta Satur. Musika emonaldia; 18:00etan, herri kirolak. Tubi...; 19:00etan, Joselontxos txarangea; 23:00etan, DJ Lander.

URRI LEHEN. 28
BEDIA

Jauregi-Yeuri auzoko jaiak. 14:00etan, X. Pintxo Lehiaketea.

ZEANURI

Gorbeia Suzien. 11:00etan, umeen lasterketarako izen-emotea; 12:00etan, umeen lasterketako urtekerea.

URRI LEHEN. 29
ARTEA

San Migel jaiak Elexabeitin. 12:00etan, mezea; ondoren barauskarria.

IGORRE

11:00etatik 13:00etara, *Webguneak, posta elektronikoa eta internet segurtasunez erabili* tailerra Kultur Etxean.

Garbeko jaiak. 12:00etan, mezea; ostean, barauskarria eta herriko trikitilariak.

ZEANURI

Altzustako jaiak. 11:00etan, mezea San Migel ermitan; txistulariak.

KOMIKIA

Kailo Ren

IRAGARKI LABURRAK

DANERIK BULEGOA SALDU EDO ALOKATZEN DA
 Arrigorriagako erdigunean 43 metro karratuko lokala. Guztiz instalatuta eta altzariz horniduta. Interesdunek deitu 665 709 651 telefonora.

SALTZEAN DODAZ
 Lowepro argazkilaritza motxila gorria, neurriak: 26x34x11, prezioa: 35 euro. Umeentzako tipi ohea. 90x190 cm neurrikoa, 90 cm-ko zabalerako koltxoirako. Somierra zoru gainean. Kolorea: egurra eta zuria eta prezioa: 90 euro. Interesdunek deitu 661 273 192 telefonora.

GELA BEHAR DOT ALOKAIRUAN
 Pisu konpartidu baten, persona bakar batentzako gela bat behar dot alokairuan. Telefonoa: 642 912 390.

MAHAIA OPARITZEN DOT
 Eskola adineko umeentzako mahai aproposa oparitzen dot. Telefonoa 630 363 971.

DORDOKEA TOPAU DOGU
 Dordoka bat topau dogu Igorren, San Juan auzoan. Zurea bada, 611 617 137 zenbakira deitu.

KIMIKAKO KLASEAK HARTU GURA DODAZ
 Bigarren Babilergoko kimika klaseak euskeraz jasoteko nonoren bila nabil abuztuaren hasieratik, ordutegi malguagaz, gero, klaseak urte osoan zehar izateko asmoz zapatuetan ordu biz. Deitu: 638 889 851.

SALTZEAN DOT
 Ezkaraiko aparadore bat, 1,50eko mahai eta aulkiak, haretx egurrezkoak. Oso egoera onean. Banan-banan erosi ahal dira. Interesdunek deitu 657 777 542 telefonora.

IRAKASLE BILA
 Eskola partikularretarako piano irakasle bila nabil. Telefonoa: 608 062 592.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ
 Hari's Rock School. Gitarra klaseak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztebxean. Interesdunek deitu 664 303 528 telefonora edo idatzi a.harillo.gracia@gmail.com helbidera.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 **Areatzako Udalak emondako Dolu bat eta dolu bi** liburuaren ale bat.

Uriburu Batzarra (Artea)



2 **Lemoako Kultur Etxeak emondako bina sarrera Zuhaitz Gurrutxagaren Nortasun agiria** bakarrizketarako.

Eneritz Atutxa (Lemoa)
 Maitane Campo (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 23 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

BIXER

TABERNA

Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA Hartz Klinika

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

BIZARGINAK

1976

BIZARGINTZA-ILEAPAINDEGIA

94 607 78 33
LEHENDAKARI AGIRRE 9, IGORRE

KIRRU

ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TEL. 94 631 92 00

GORBEIALDE

LANDA GARAPENA

ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO GARAPENEAN LAGUNTZEN

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia

94-673-70-87
609-79-40-54

ZEKUTZE

JATETXEA

Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83

begitu

.eus

MERKARTEA 2025

IRAILAK 20

HERRI BAT
MERKATU
BAT

EGITARAUUA

- 10:00-15:00:
MERKARTEA AZOKA
- 12:00-14:00:
PHOTOCALL
(Baserritarrez jantzita datozenentzako)
- 21:00:
AUKERAN DANTZA KONPAINIAREN
"FUSIOAK" IKUSKIZUNA
- 23:30:
ZUTIK ERROMERIA